



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

LEHEN KAPITULUA

Mankomunitatearen eraketa eta helburuak

1. Eibar, Elgoibar, Mendaro, Plentzia, Deba, Mutriku, Ermua eta Mallabiako udalek –lehenengo seiak Gipuzkoako Lurralde Historikokoak eta azken biak Bizkaiko Lurralde Historikokoak– borondatezko mankomunitate bat osatzen dute, hiri-hondakin solidoak jaso, garraiatu eta errausteko, hondakin solido ez-organikoak tratatzeko, bide-garbitaketa eta txakurtegi mankomunitateko zerbitzuak kudeatu, antolatu eta elkarren artean emateko.
2. Halaber, mankomunitatearen helburua da tokiko administrazioaren eskumenekoak diren eskualde mailako beste zerbitzu eta ekimen batzuk eskaintzea, baldin eta mankomunitatea osatzen duten udalerriek adosten badute horiek martxan jarri eta ustiatzea, udalerrri baten ekimenez edo Mankomunitateko Batzar Orokorrak proposatuta.
Edonola ere, mankomunitateak ezingo ditu hartu bere gain mankomunitatea osatzen duen udalerrri bakoitzari dagozkion udal-eskumen guztiak.
3. Mankomunitate honek, izaera publikoko tokiko erakunde gisa, pertsonalitate juridikoa du eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa, eta hura osatzen duten udalerriei dagokien lurralde-eremuan legez aitorturiko eskumenak gauza ditzake, hargatik alde batera utzi gabe beste erakunde publiko batzuekin egin ditzakeen hitzarmenak.

BIGARREN KAPITULUA

Izendapena, egoitza eta sinboloak

4. Adierazitako tokiko erakundearen izena "Deba Beheko Mankomunitatea - Mancomunidad del Bajo Deba" izango da.¹

¹ **DILIGENCIA**, por la que se hace constar que la Junta General de la Mancomunidad del Bajo Deba, en su Sesión Extraordinaria de fecha 20 de Enero de 1.999, acordó modificar el texto del Artículo 4 de los Estatutos de la Mancomunidad, quedando la redacción de dicho Artículo como sigue:

Art. 4 La expresada Entidad Local se denominará DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEA – MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA.

Que los Plenos Municipales de los Ayuntamientos socios de la Mancomunidad, procedieron a ratificar el citado Acuerdo, copia de cuyas notificaciones obran en el archivo.


Eibar, a 3 de Mayo de 1.999



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal

5. Helbide honetan dago mankomunitatearen egoitza: Egiguretarren kalea, 2. zenb. behea, Eibar.
6. Mankomunitatearen ezkutua honelakoa izango da:



LEHENENGO TITULUA

GOBERNUAREN ORGANOAK

7. Hauek dira Debabarrenako Mankomunitatearen gobernu-organoak:
 1. La Junta General / Batzar Orokorra.
 2. La Comisión de Gobierno / Gobernu Batzordea.
 3. El Presidente / Lehendakaria.
 4. Las Comisiones Informativas / Informazio-batzordeak.

LEHEN KAPITULUA

Batzar Orokorra

1. ATALA

Osaketa, izendapena, eraketa eta amaiera

8. Batzar Orokorra da mankomunitatearen organo subiranoa. Mankomunitatea osatzen duten udaletako udalbatzetako hautetsiek osatzen dute, eskala honen arabera kopuruaren eta banaketaren arabera.
 - 5.000 biztanle arteko udalderriak..... kide 1 (bat).
 - 5.001 eta 10.000 biztanle arteko udalderriak..... 2 (bi) kide.
 - 10.001 eta 20.000 biztanle arteko udalderriak..... 3 (hiru) kide.
 - 20.001 biztanletik gorako udalderriak 4 (lau) kide.Mankomunitatea osatzen duten udaletako erroldetan erroldatutako biztanleak izan behar dute.

- 9.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

1. Debabarrenako Mankomunitatea osatzen duten udalei dagokie, hautetsien artetik, mankomunitatean udala ordezkatzuko dutenak eta Debabarrenako Mankomunitateko Batzar Orokorra osatzuko dutenak hautatzea.
 2. Debabarrenako Mankomunitatea osatzen duten udalek udalbatzak eratzeko bilkuratek hogeita hamar eguneko epean izendatu beharko dituzte ordezkari horiek.
 3. Udal bakoitzeko idazkaritzak egindako izendapenaren egiaztatzea egin beharko du. Aldi berean, egiaztatze horri sarrera eman beharko zaio Debabarrenako Mankomunitatearen idazkaritzan, Debabarrenako Mankomunitatea osatzen duen udal bakoitzeko izendapen-akordioa egiten denetik bost eguneko epean.
10. Tokiko hauteskundeak egiten direnetik hirurogei egun naturaleko epean –baldin eta ez bada aurkezten hauteskundeekiko auzi-errekurtsorik Debabarrenako Mankomunitatea osatzen duten udaletako batean hautatutako zinegotzien aldarrikapenaren aurka (kasu horretan, hauteskundeak egin eta lauerogei eguneko epean eratuko da Debabarrenako Batzar Orokorra) –, udal bakoitzak izendatutako hautetsiek batzarra egingo dute goizeko hamaiketan, aurrez mankomunitateko idazkaritzak deialdia egin ondoren, Debabarrenako Mankomunitateko egoitzako batzar-aretoan edo hartarako prestatutako lekuan. Bilkura horretara ez balitz agertuko hautetsien gehiengo osoa, beste eraketa-bilkura bat egingo da bi egun aurrerago, leku eta ordu berean. Ez da beharrezkoa izango berariazko deialdirik egitea.
- Bigarren deialdi horretara ere ez bada agertzen hautetsien gehiengo osoa, eratuta geratzeko da Debabarrenako Mankomunitateko Batzar Orokorra, parte hartzen duten kideen kopurua edozein izanik.
11. Debabarrenako Mankomunitatearen eraketa-bilkuran, honako pauso hauek eman beharko dira:
1. Adin-mahaiaren eraketa. Batzarrean parte hartzen dutenen artetik nagusiena denak –presidente gisa jardungo du– eta gazteenak –mankomunitateko idazkari gisa jardungo du– osatzen dute.
 2. Hautetsiek aurkezturiko egiaztagirak edo pertsonalitate-egiaztagirak egiaztatuko ditu mahaiak, eta lehendakariak Mankomunitateko Batzar Orokorra eratuko du.
 3. Ondoren, mankomunitateko lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko dira. Presidente eta lehendakariorde hautatua izango da, hurrenez hurren, lehenengo botazioan botoen gehiengo osoa lortzen duen hautagaia. Lehenengo botazioan hautagai batek ere ez balu lortuko gehiengo osoa, beste botazio bat egingo da segidan, eta lehendakari eta lehendakariorde izendatuko da, hurrenez hurren, botoen gehiengo soila lortzen duen hautagaia. Berdinketa izanez gero, Debabarrenako Mankomunitateari dagokion eremuan boto gehien dituen alderdiko hautagaia aukeratuko da. Ondoren, Gobernu Batzordeko kideak izendatuko dira.
 4. Mankomunitateko Batzar Orokorren eraketa-bilkuran egon ez diren hautetsiek hurrengo saioetan sartu ahal izango dute Batzar Orokorrean. Aurrez, egiaztatzea aurkeztu beharko diote mankomunitateko idazkariari, eta Batzar Orokorrek egiaztatze horiek aztertuko ditu, 2. zenbakian aurreikusitako moduan.
12. Hautetsiak Batzar Orokorreko kide bihurtzea aurreko artikuluan aurreikusitako moduan egiaztatu arte, hautetsi



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

horiek ezingo dute jardun Batzar Orokorreko kide gisa eta ezingo dute parte hartu gobernu-organoen ekintzetan. Bitarte horretan, mankomunitateko kideen kopurua murriztu egingo da, indarrean dagoen legeriak eskatutako parte-hartze quorumak eta boto-kopuruak zehazteko orduan.

13. Mankomunitateko Batzar Orokorra eratu aurretik edo kide hautetsiak hura eratu ondoren sartzen badira Batzar Orokorrean, sarrera ekonomikoak ematen dizkieten edo eman diezazkieten ondasun eta jarduera pribatuen aitortpena egin beharko dute kide horiek, baldin eta, aurrez, dagokien udaleko idazkariaren aurrean aurkeztu ez badute. Kasu horretan, aitortutako ondasunak jasotzen dituen ziurtagiria bidaliko du idazkariak. Mankomunitateko idazkaritzaren zaintzapean hartarako sortutako Interesen Erregistroan inskribatuko dira aitorten horiek.
- Batzar Orokorreko kide bakoitzak aitortutako datuetan aldaketarik izanez gero, beste aitorten bat egin beharko da, eta erregistroan inskribatu.
- Hilabeteko epea egongo da aldaketak jakinarazteko, horiek gertatzen direnetik hilabete bateko epean. Egindako aitorten bakoitzaren hartu-agiria egingo du idazkariak, eta hura aurkeztutako data jasoko du. Mankomunitateko kide batek ez badu betetzen aitortpena Interesen Erregistroan aurkezteko obligazioa, lehendakariak berariaz hala eskatu arren, obligazio hori bete ez izana egiaztatzen duen eginbidea irekiko da liburuan, eta eginbide hori erregistroan mantenduko da, interesdunak aitortenak egiteko legezko obligazioa betetzen duen arte.
14. Udaltzatza berriak eratu baino bost egun baliodun lehenago edo aurreko egun baliodunean egingo du azken bilkura Batzar Orokorrak. Aurreko saioetako aktak onartzea izango da bilkura horren helburu bakarra, eta, horrela amaituko da haren jarduna.

2. ATALA Eskuduntzak

- 15.
1. Hauek dira Batzar Orokorren eskuduntzak:
 - A. Mankomunitateko lehendakaria eta lehendakariordea hautatzea eta Gobernu Batzordeko kideen izendapena berrestea.
 - B. Mankomunitateko politika- eta administrazio-arloko jarraibideak zehaztu eta onartzea.
 - C. Gobernu-organok kontrolatu eta fiskalizatzea.
 - D. Mankomunitateko Estatutu Organikoa eta haren aldaketak onartzea, baita izaera orokorreko bestelako xedapen, ordenantza eta erregelamenduak ere.
 - E. Zerga-izaerako baliabide propioak eta udalek ezarri beharreko kuotak zehaztea eta aurrekontuen aldaketak onartzea eta aldatzea; Batzar Orokorri dagozkion gaietan gastuen antolamendua zehaztea; kontuak onartzea eta kreditu- eta berme-eragiketarako adostea.
 - F. Zerbitzuak kudeatzeko moduak eta mankomunazio-espeditentak onartzea.
 - G. Beste administrazio publiko batzuek egindako eskumen-eskuordetzak onartzea.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

- H. Beste tokiko erakunde eta administrazio publiko batzuei eskumen-gatazkak planteatzea.
 - I. Plantillako langileak onartzea. Lanpostu-zerrenda, funtzionario eta langileen zenbateko osagarriak eta behin-behineko langileen kopurua eta erregimena onartzea, 7/85 Legeko VII. Tituluan adierazitako moduan, eta mankomunitateko funtzionarioak zerbitzutik kentzea eta lan-kontratudun langileen kaleratzeak berrestea.
 - J. Funtzionarioak eta lan-kontratudun langileak aukeratzeko eta kontratatzeko oinarriak onartzea.
 - K. Ondasunak besterentzea, 500.000 pezetatik beherako balioa duten ondasun higigarriak izan ezik, kontsumo-prezioen indizearen aldaketen arabera eguneratuta.
 - L. Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi eta obra, zerbitzu eta hornikuntzak kontratatzea, baldin eta lehendakariari edo Gobernu Batzordeari berariaz dagozkion eskuduntzak ez badira.
 - M. Nahitaezko desjabetzea aplikatzea eta hartarako hartu beharreko erabakiak hartzea.
 - N. Egintzak eta akordioak ofizioz berrikustea, ekintzak egin dituen edo erabakiak hartu dituen gobernu-organoa edozein izanik.
 - O. Egintza administratibo eta judizialak martxan jartzea.
 - P. Mankomunitatearen desegitea onartzea.
 - Q. Lehendakariaren eta lehendakariordearen zentsura-mozioa onartzea, eta, beraz, horiek kargugabetzea.
2. Mankomunitateko Estatutu Organikoa onartzeko eta aldatzeko eta mankomunitatea eratu, handitu, xurgatu eta desegiteko akordioak hartarako berariaz deitutako Batzar Orokorraren bilkura berezia hartu beharko dira, eta gai-zerrendako puntu bakarra izan beharko dute.

BIGARREN KAPITULUA

Gobernu Batzordea

1. ATALA

Izendapena, eraketa eta amaiera

- 16. Debabarrenako Mankomunitatea osatzen duten udal bakoitzeko kide batez osatzen da Gobernu Batzordea. Udal bakoitzeko ordezkariak aukeratu beharko dute kide horietako bakoitza, eta Batzar Orokorra berretsi behar ditu izendapen horiek.
- 17. Debabarrenako Mankomunitateko Batzar Orokorra eratzeko bilkura egin ondorengo hamabosgarren egunean eratuko da Gobernu Batzordea.
- 18. Debabarrenako Mankomunitatea osatzen duten udaletako udalbatzak eratu baino hamar egun baliodun lehenago edo aurreko egun baliodunean egingo du Gobernu Batzordeak azken saioa, aurreko bilkurako akta onartzeko helburu bakarrarekin. Une horretatik aurrera, Debabarrenako lehendakariarenak izango dira



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

mankomunitateko ohiko kudeaketa eta administrazioko eskuduntza guztiak, Batzar Orokor berria eratu bitartean.

2. ATALA Eskuduntzak

19. Hauek izango dira Gobernu Batzordearen eskuduntzak:
- A. Mankomunitateko zerbitzuen kudeaketa eta administrazioa zuzentzeko plan eta programak onartzea.
 - B. Mankomunitateko aurrekontua gauzatzea, han esleitutako gastuak xedatuz (500.000 pezetatik beherakoak eta aurrekontuko ohiko diru-sarreraren %4a gainditzen ez dutenak –hornikuntza eta zerbitzuen kasuan– eta % 10a gainditzen ez dutenak –obren kasuan–).
 - C. Enplegu publikoko eskaintzatik eratorritako deialdiak egitea, Batzar Orokorrak funtzionarioak eta lan-kontratadun langileak hautatzeko eta kontratatuzko onartutako oinarrien arabera.
 - D. Mankomunitatearen zerbitzura dauden langileak kontratatu eta kaleratzea.
 - E. Mankomunitateko langileei irekitako diziplinazko espedienteak ebatzi, zigorra ezarri eta sariak ematea.
 - F. Mankomunitateko langileen egoera administratiboak aitortzea.
 - G. Mankomunitateko langileen produktibitate-osagarriak eta eskupekoak banaka esleitzea.
 - H. Ondasun higigarriak besterentzea –500.000 pezetatik beherakoak– kontsumo-prezioen indizearen aldaketen arabera eguneratuta.
 - I. Gainerako gobernu-organoei erreserbatu gabeko gainerako eskuduntzak edo organo horiek Gobernu Batzordeari eskuordetzea erabakitakoak.

HIRUGARREN KAPITULUA

Lehendakaria

1. ATALA Izendapena

20. Debabarrenako Mankomunitateko Batzar Orokorreko kideen artetik aukeratuko da mankomunitateko lehendakaria, 11. artikuluan aurreikusitako moduan.
21. Lehendakari hautatuak bere izendapena onartu beharko du, eta Batzar Orokor horretan bertan hartu beharko du kargua, hautatua izan eta berehala.
22. Lehendakari hautatua ez badago bilkuran, beste bilkura bat deituko da hurrengo hamar eta hamabost egun naturalen arteko epean, aurreko artikuluan jasotako ondorioetarako.
Lehendakari hautatua bilkura horretara agertuko ez balitz hartarako arrazoirik eman gabe, izendapena ez duela onartzen ulertuko da. Kasu horretan, Batzar Orokorrak beste hautaketa bat egin beharko du bilkuran



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

bertan, baldin eta partaide guztiak ados badaude, edo, hala ez bada, berrogeita zortzi ordu geroago egingo den beste bilkura batean.

2. ATALA

Ez agertzea

23. Lehendakariordeak ordezkatu du lehendakaria, baldin eta ura ez bada agertzen, haren lekua hutsik badago edo gaixorik badago, eta haren eskuduntzak hartuko ditu bere gain, hura materialki ez dagoen bitartean, baldin eta premiazko jarduerak egin behar badira. Aldi berean, lehendakaria ahalik eta epe laburrean agertzeko beharrezkoak diren kudeaketak egingo dira.
- Kasu horretan, premiazko egoerak ezinbestean eskatzen dituen neurriak hartzera mugatuko da lehendakariordearen jarduna.
24. Lehendakariaren ez-agertze gisa joko da –arrazoia edozein izanik– egoera hauetako edozein:
1. Lehendakariak berariaz hala adieraztea, ez agertzearen arrazoia eta gutxi gorabeherako iraupena zehaztuz.
 2. Bulegoan ez agertzean segidako lau lanegun baino gehiagoz, aurreko atalean aipaturiko adierazpenik gabe.
 1. atalean adierazitako egoeran, lehendakariak zehaztuko du, hura ez dagoen bitartean, egokitzen jotzen duen ordezkapena ezarritako moduan egitea.
 2. atalean aurreikusitako egoeran, lehendakariordeak lehendakaria ordezkatu du hari dagozkion eskuduntzetan. Gobernu Batzordeari eta Batzar Orokorrari ebazpen ziodun bidez emango die horren berri, organo horiek egiten duten lehenengo bileran, baldin eta lehendakariak berak jadanik berretsi ez badu erabaki hori.
25. Inolaz ere ez da ez-agertze gisa hartuko eta ez da ulertuko lehendakariak lehendakariordearen esku uzten dituela bere eskuduntzak –aurreko artikuluetan adierazitako kasuetan salbu–, lehendakaria justifikaziorik gabe agertzen ez bada noizean behin edo lehendakariari dagozkion eginbeharrak betetzea bada ez-agertzearen arrazoia.

3. ATALA

Kargua galtzea

26. Indarrean dagoen legerian alkate kargua galtzeko adierazten diren inguruabarretako batengatik galduko da lehendakari kargua.
- Titularrak lehendakari kargua galtzean, hura ordezkatu duena hautatu beharko da.
27. Karguari uko eginez gero, idatziz adierazi, eta Batzar Orokorrari aurkeztu beharko zaio.
- Lehendakari karguari uko egiteak ez du esan nahi Batzar Orokorreko kide izateari uzten zaionik.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

28. Zentsura-mozioaren kasuan, hauteskunde-lege orokorrean adierazitakoa bete beharko da, aurkezpenari, izapideei eta ondorioei dagokienez.
- Hala eta guztiz ere, eta lege horretan adierazitakoa alde batera utzi gabe, idatziz aurkeztu beharko da, aurkezten dutenek sinatua. Idatziaren hasieran, banan-banan adierazi beharko dira sinatzaileak.
- Idatzi horretan, argi eta garbi eta behar bezala bereizita adierazi beharko dira zentsura aurkeztearen arrazoiak, eta lehendakari kargurako proposatzen den hautagaiaren izen-abizenak ere aipatu beharko dira.
- Mankomunitateko idazkariari entregatu beharko zaio idatzia, eta hark egingo ditu izapideak, sarrerako data jasota. Ondoren, idatziaren kopia ziurtatua egingo du, eta mankomunitatea osatzen duten kide guztiei bidali beharko die.
- Zentsura-mozioa aurkeztu ondoren, ezingo da egin gehikuntzarik edo zuzenketarik, ez eta lehendakari kargurako proposatutako hautagaia aldatu ere.
- Zentsura-mozioaren proposamengileek atzera egin ahal izango dute botazioa egiteko bilkura arte. Mozio hori ondoriorik gabe geratuko da, baldin eta mozioa oraindik sinatzen dutenen kopurua ez bada indarrean dagoen legeriak eskatutako gutxienez iristen.
29. Lehendakari kargua galtzea dakarren edozein arrazoiren berri modu frogagarrian izan ondorengo hogeita hamar egunen barruan, Batzar Orokorraren bilkura berezia deitu beharko da, soilik arrazoi horiei buruzko erabakia hartzeko eta, hala badagokio, lehendakari berria aukeratzeko helburuarekin.
- Ezohiko saio hori zazpi egun lehenago deitu beharko da, gutxienez, alde batera utzita deialdia egiten den eguna eta bilkura egiten den eguna.
30. Lehendakariordeak zehaztuko ditu aurreko artikuluan adierazten diren bilkura bereziko data eta ordua.
31. Lehendakaria hil edo desgaitasun bereziaren zigorra ezartzen dion epai irmo bat izanez gero, lehendakariordeak hartuko ditu haren funtzioak.
- Gainerako kasuetan, lehendakariak bere funtzioak betetzen jarraituko du, Batzar Orokorrek dagokion bilkura berezian gaiari buruz erabaki arte.
32. Lehendakari berria hautatuz gero, legeria orokorrean eta estatutu honetan xedaturikoa bete beharko da.
33. Bilkura-berezian zentsura-mozioari buruz eztabaidatzean, arau hauek bete beharko dira:
1. Mozioaren proposamengile guztiek eskubidea izango dute hura defendatzeko. Proposamengileek beren artean banatu beharko dituzte parte hartzeko denborak, eta, guztiek batera, ezingo dituzte erabili hogeita hamar minutu baino gehiago. Halaber, denbora horretan zentsura-mozioa haietako batek bakarrik defendatzea erabaki dezakete.
 2. Lehendakariak hirurogei minutu baino gutxiagoan azaldu beharko ditu zentsura-mozioaren aurkako eta bere jardunaren aldeko arrazoiak.
 3. Mozioa sinatu ez duten talde politikoetako eta lehendakariaren alderdi berekoak ez diren



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

bozeramaileek hitza hartu ahal izango dute haien jarrera azaltzeko. Bakoitzak hamar minutu izango ditu gehienez, eta kide gutxien dituen taldetik gehien dituen taldeko ordenan parte hartu beharko dute.

4. Jarrerak eta argudioak argitu edo zehazteko, beste behin parte hartu ahal izango dute mozioaren proposamengileek, lehendakariak eta gainerako talde politikoetako bozeramaileek. Bakoitzak hamar minutu izango ditu gehienez.
 5. Parte-hartzeak amaitu ondoren, zentsura-mozioaren botazioa egingo da. Zentsura-mozioa osotasunean hartuko da kontuan, zuzenketarik gabe.
 6. Botazioa sekretua izango da. Baiezko botoak mozioarekiko adostasuna adierazten du, eta ezezkoak haren aurkako jarrera. Bestelako adierazpenak edo adierazpen ezak abstentzio gisa ulertuko dira.
 7. Baiezko botoen gehiengo osoa lortuta zentsura-mozioa onartzen bada, baliorik gabe geratuko da lehendakariaren izendapena, eta zentsura-mozioan proposatutakoa hautatuko. Hala, hark hartuko du lehendakari kargua, eta, segidan, kargua onartu eta karguaz jabetu beharko du, estatutu honetan aurreikusitako moduan.
 8. Zentsura-mozioaren aldeko nahiz aurkako parte-hartzeek hura oinarritzen duten arrazoiei buruzkoak izan beharko dute hertsiki, eta, beraz, ezingo da bestelako arrazoirik aipatu edo argudiatu.
34. Aurreko artikuluan jasotako prozedura aplikagarria izango da lehendakari kargua galtzen den gainerako kasuetan ere.

4. ATALA Eskuduntzak

35. Lehendakaria mankomunitateko lehendakaria eta Debabarrenako Mankomunitateko administrazio guztiaren burua izango da.
36. Hauek dira lehendakariaren eskuduntzak:
- A. Mankomunitateak egiten dituen ekintza publikoetan ordezkari eta buru izatea, legezko xedapen baten arabera lehendakaritza beste agintari bati dagokionean salbu.
 - B. Batzar Orokorraren, Gobernu Batzordearen eta informazio-batzordeen bilkurak deitu, gidatu eta atzeratzea, eta berdinketetan erabakia hartzea, kalitateko botoaren bidez.
 - C. Mankomunitatearen zerbitzura dauden langileen buru jardutea.
 - D. Mankomunitateko zerbitzuak zuzendu eta ikuskatzea, mankomunitateko administrazio osoaren eta ematen dituen zerbitzuen funtzionamendu egokia zainduz eta ohiko funtzionamenduaren oztopoak desagerraraziz.
 - E. Mankomunitateko kide, funtzionari eta langileek beren eskuduntzak libreki gauzatzeko dituzten oztopoak kentzea, indarrean dauden lege-arauen arabera.
 - F. Mankomunitateko gobernu-organoen akordioak argitaratu, bete eta betearaztea.
 - G. Mankomunitatearen aurrekontu-proiektua egitea.
 - H. Ordainketak antolatzea eta kontuak ematea mankomunitateko ondarearen administrazioari eta



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

aurrekontuaren betearazpenari buruz.

- I. Aurrekontuan esleitutako gastuez xedatzea –aurrekontuko sarrera arruntetatik 500.000 pezeta gehienez (hornikuntzen eta zerbitzuen kasuan) –.
- J. Gordailuzaintzako sarrerak formalizatzeko dokumentuak baimentzea.
- K. Mankomunitateko karrerako funtzionarioak izendatu, lan-kontratudun langileen kontratuak formalizatu eta diziplinazko espedienteak izapidetzea.
- L. Dokumentu pribatuak edo publikoak baimentzea mankomunitatearen izenean.
- M. Premiazko kasuetan egintza judizial eta administratiboak erabiltzea, eta Batzar Orokorra jakinaren gainean jartzea, egintza horiek erabili ondoren egindako lehenengo bilkuran.

LAUGARREN KAPITULUA

Lehendakariordea

1. ATALA

Izendapena

- 37. Debabarrenako Mankomunitateko Batzar Orokorreko kideen artetik aukeratuko da mankomunitateko lehendakariordea, 11. artikuluan aurreikusitako moduan.
Gobernu Batzordeko kide bati dagokio kargua.
- 38. Lehendakariorde hautatua ez badago saioan, beste bilkura bat deituko da hurrengo hamar eta hamabost egun naturalen arteko epean, aurreko artikuluan jasotako ondorioetarako.
Lehendakariorde hautatua bilkura horretara agertuko ez balitz hartarako arrazoirik eman gabe, izendapena ez duela onartzen ulertuko da. Kasu horretan, Batzar Orokorrek beste hautaketa bat egin beharko du bilkuran bertan, baldin eta partaide guztiak ados badaude, edo, hala ez bada, berrogeita zortzi ordu geroago egingo den beste bilkura batean.

2. ATALA

Kargua galtzea

- 39. Indarrean dagoen legerian alkate kargua galtzeko adierazten diren inguruabarretako batengatik galduko da lehendakariorde kargua.
Titularrak lehendakariorde kargua galtzean, hura ordezkatzeko duena hautatu beharko da.
- 40. Karguari uko eginez gero, idatziz adierazi, eta Batzar Orokorri aurkeztu beharko zaio.
Lehendakariorde karguari uko egiteak ez du esan nahi Batzar Orokorreko kide izateari uzten zaionik.
- 41. Lehendakari kargua galtzeko gainerako arrazoiak ere aplikatuko zaizkio lehendakariordeari, zentsura-mozioa barne. Hartarako, lehendakari kargua galtzeari buruzko artikuluetan kasu bakoitzerako aurreikusitako



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

prozedura bete beharko da.

3. ATALA Eskuduntzak

42. Lehendakariordeak lehendakaria ordezkatu beharko du, hura ez dagoenean edo estatutu honetan aurreikusitako kasuetan.
Ordezkapen horrek adierazten du -hurrengo paragrafoan adierazitako kasuetan salbu-, lehendakaria ez dagoela eta lehendakariaren eskuduntza guztiak betetzea dagokiola lehendakariordeari.
Lehendakariordeak ezingo du, inolaz ere, beste lehendakariorde bat izendatu eta ezingo ditu lehendakariari dagozkion eskumenak eskuordetu edo eginda dauden eskuordetzak aldatu.
Bestalde, lehendakariak eskuordetutako eskuduntzak bete beharko ditu.

BOSGARREN KAPITULUA Mankomunitateko kideak

1. ATALA Izendapena eta amaiera

43. Debabarrenako Mankomunitatea osatzen duten udalbatzek izendatuko dituzte mankomunitateko kideak, 8. artikuluan adierazitako kopuruen arabera.
- 44.
1. Mankomunitateko kide kargua gal daiteke heriotzagatik, karguari uko egiteagatik edo kargu publiko bat izateko desgaikuntza-zigorra ezartzen duen epai irmo bat jaso delako (izaera nagusia nahiz osagarria duena).
 2. Ez da kargua galduko bilkuretara ez joateagatik, auzotasuna galtzeagatik edo aurkeztu zuen alderdiko kide izateari uzteagatik.
45. Uko egitea idatziz formalizatu beharko da beti, eta lehendakariaren aurrean aurkeztuko da. Lehendakariak hurrengo bilkuran emango du haren berri.
46. Batzar Orokorrak kide horren lekua hutsik dagoela aitorturik, eta mankomunitateko kide izateari uzteko arrazoietako bat betetzen bada, hartutako erabakiaren egiaztagiria bidaliko zaio jatorrizko udaleko gobernu-organo eskudunari, hark beste egiaztagiri bat egin dezan dagokionaren alde. Kide berria mankomunitatean sartuko da, estatutu honetan adierazitako moduan.
47. Kidea izendatu eta hurrengo 90 eguneko epean ez bada mankomunitateko kide egiten estatutu honetan adierazitako moduan, hartarako arrazoirik gabe, Batzar Orokorrak galdutzat eman ahal izango du



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

interesdunaren kide izaera, eta aurreko artikuluan adierazitako prozedurari jarraitu.

2. ATALA

Eskuduntzak

48. Mankomunitateko kideen funtzioa da Batzar Orokorra eta Batzar Orokorrak erabaki beharreko gaiak aztertzea edo kontsultatzea helburu duten mankomunitateko organo osagarriak osatzea, estatutu honetan adierazitako moduan.

SEIGARREN KAPITULUA

Informazio-batzordeak

1. ATALA

Eraketa eta amaierak

49. Batzar Orokorrak egoki iritzitako informazio-batzordeak eratu ahal izango ditu haren eskumeneko gaiak aztertu eta informazioa biltzeko.
50. Batzar Orokorrak eratu ondoren egindako lehen bilkuran zehaztuko ditu informazio-batzordeen kopurua, osaketa eta eskuduntzak, beti ere, Batzar Orokorra eratu eta hurrengo 30 egunen buruan. Hala eta guztiz ere, Batzar Orokorrak edozein unetan aldatu ahal izango ditu aipatutako ezaugarri horiek, eta batzorde berriak sortu edo daudenak desegin ahal izango ditu. Halaber, lehendakariak edo Batzar Orokorrak edozein unetan eratu ahal izango ditu informazio-batzorde bereziak edozein gai zehatz aztertzeko, eta gaiari buruzko behin-betiko erabaki bat hartu ondoren desegin.

2. ATALA

Eskuduntzak

51. Informazio-batzordeei dagokie Batzar Orokorrak erabaki beharreko gaiari buruz erabakitzeke proposamenak aztertu eta formulatzea. Horrez gainera, lehendakariaren edo Gobernu Batzordeak berariaz eskatuta ere egin beharko dute, gobernu-organoren eskumenekoak diren gaietan eta gaiaren garrantziak edo izaera gatazkatsuak hala gomendatzen duenean.
52. Informazio-batzorde bakoitza eratzeko unean, Batzar Orokorrak bakoitzaren jarduera-esparru materiala zehaztu beharko du, eta informazio-batzorde bakoitzak bere eskuduntzak aurrera eramateko landuko dituen bloke edo gaiak zerrendatu. Informazio-batzorde batek ez du jardun behar beste baten eskumenekoak diren gai edo alderdietan. Lehendakariak erabakiko du horrelako gatazkei buruz.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

53. Informazio-batzordeen irizpen edo proposamenek ez dute izaera loteslea izango, eta, beraz, organo erabakitzaileak erabakiko du, egoki deritzon kasu bakoitzean.
54. Estatutu honetan jasotako gobernu-organoez aztertu eta, hala badagokio, erabaki beharreko gai guztiak, aurrez, dagokion unitate administratiboak izapidetu beharko ditu.

BIGARREN TITULUA

LEHEN KAPITULUA

Erabakiak hartzea

55. Gobernu-organoez estatutu hauetan eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoan xedaturikoaren arabera hartu beharko dituzte erabakiak.

1. ATALA

Kide bakarreko organoak

56. Kide bakarreko gobernu-organoez idatziz hartu behar dituzte erabakiak, erabakiaren izaerak hala eskatzen ez duenean salbu. Erabakiei “dekretu” esaten zaie izaera zehatzekoak direnean, eta “bando” jende-multzorokor bati zuzenduak direnean eta gai jakin bati buruz erabakitzea helburu ez dutenean. Organoaren titularrak hartuko ditu erabakiak, eta dagokion espedientean jasoko dira.
57. Erabakian erabaki-proposamenarekiko adostasuna ager daiteke, besterik gabe. Kasu horretan, erabaki-proposamena erabakian txertatuko da osorik, haren justifikazio gisa. Bestela, eta beharrezkoa bada, erabakia jasotzen duten arrazoiak jaso beharko dira.

2. ATALA

Kide anitzeko organoak

58. Gobernu Batzordeak eta Batzar Orokorrek hartutako erabakiei “akordio” deituko zaie, eta ohiko bilkuretan edo bilkura berezietan egingo dituzte. Ohiko deitzen zaie aurrez ezarritako maiztasunarekin egiten diren bilkurei, eta berezi gainerakoei. Informazio-batzordeetan ere berdin egingo da. Horiek hartutako erabakiei “proposamen” deituko zaie.

1. azpiatala

Bilkuren deialdia

59. Kide anitzeko organoak bilkurak egiteko biltzen dira. Lehendakariak egin beharko du deialdia idatziz,



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

gutxienez, lau egun baliodun lehenago, deialdia egiten den eguna eta bilkura-eguna kontuan izan gabe. Idatzi horretan, honakoa adierazi beharko da:

1. Bilkura egingo den lekua.
2. Bilkuraren eguna eta ordua.
3. Eztabaidatuko diren gaiak edo gai-zerrenda.
4. Bilkura ohikoa edo berezia izango den.

Kide anitzeko organoa osatzen duten kideei adierazitako aurrerapenarekin egingo zaie deialdia, eta aurrerapen berarekin argitaratuko da mankomunitateko iragarki-taulan.

Hartarako, kide anitzeko organoko kideek jakinarazpenak non jasoko dituzten adierazi behar diote mankomunitateko idazkaritzari. Mankomunitateko jurisdikzio-barrutian izan beharko du beti, eta baldintza hori betetzat joko da jakinarazpena materialki adierazitako lekuan uztean. Jakinarazpenak jasotzeko leku zehatz bat adierazi ezean, kide bakoitzari dagokion udaletxean egingo da jakinarazpena, eta, halakorik ezean, mankomunitatean esleitua duen lekuan edo kutxatilategian utziko da.

Organoko kideei gai-zerrenda jakinaraztea nahitaezko betebeharra izanik, mankomunitateko idazkaritzan behar bezala egiaztatu beharko da baldintza hori betetzen dela.

60. Premiaz deitutako bilkura berezien kasuan, deialdia egiteko lau eguneko epe hori murriztu ahal izango da. Hala eta guztiz ere, Batzar Orokorrak deialdiaren premia onartu beharko du gai-zerrendako gaiak aztertzen hasi aurretik. Horretarako, bilkura berezia egiteko arrazoiak azaldu beharko ditu lehendakariak. Premia hori onartzen ez bada, bilkura amaitutzat emango da, akordiorik gabe.
61. Edonola ere, kide anitzeko organoa eratutzat joko da organoa osatzen duten kide guztiak eta mankomunitateko idazkaria bertan badaude, aho batez hala erabakitzen badute eta, aldi berean, eztabaidagaiak edo gai-zerrenda zehazten badituzte.
62. Kide anitzeko organoen bilkuretan, haien izaera edozein izanik, ezingo dira eztabaidatu gai-zerrendan jasotzen ez diren gaiak, 61. artikuluan jasotakoa alde batera utzita. Gai-zerrendan jasotako gaiei buruzko espedienteak kide anitzeko organoko kideen esku jarri beharko dira, deialdia egiten den egunetik hasita.
63. Lehendakariak libreki erabakiko du kide anitzeko organoen bileretako gai-zerrenda. Horretarako, sail eta zerbitzuetatik jaso diren eta konpontzeko dauden gaien zerrenda –gai-zerrendan egon daitezkeenak, dagozkien informazio-batzordeek prestatu eta irizpena eman dutelako– prestatu, eta lehendakariaren esku jarriko du idazkariak.

2. azpiatala

Bilkurak egiteko modua

64. Bilkurak mankomunitateko egoitzan egingo dira.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

65. Batzar Orokorrak bilkura arrunta egingo du, eraketa-bilkuran bilkura arruntetarako adostutako ordu eta egunetan.
66. Gobernu Batzordeak bilkura arrunta egingo du, eraketa-bilkuran bilkura arruntetarako adostutako ordu eta egunetan.
67. Batzar Orokorrak eta Gobernu Batzordeak bilkura bereziak egingo dituzte, aurrez lehendakariak deialdia egiten badu, edo, gutxienez, organo horiek legez osatzen dituzten kideen laurdenak eskatzen badu. Azken kasu horretan, idatziz eskatu beharko da bilkura berezia. Eskaintzaileek sinatu beharko dute idatzi hori, eta eztabaidatuko den gaia edo gaiak adierazi beharko dira. Lehendakariak, eskaera egin ondorengo 15 egunen barruan, eskatutako bilkura bereziaren deialdia egingo du gehienez 4 eguneko epean, edo bilkura arrunt bateko gai-zerrendan sartuko ditu idatzian aipatutako gaiak. Hala ere, aukera egongo da eskaera hori dagozkion informazio-batzordeek azter dezaten uzteko, baldin eta ez badago izapide hori salbuesten duen inguruabarrik. Proposatutako gaiak ohiko bilkura edo bilkura berezi bateko edo gehiagotako gai-zerrendatan sartuz gero, ez da beharrezkoa izango eskatzen den bilkura hori egitea. Eskatutako bilkura berezia deitzeak ez dio kentzen ahalmena lehendakariari gai-zerrendan beste gai batzuk sartzeko.
68. Informazio-batzordeek bilerak egingo dituzte lehendakariak deitzean edo batzordeko kideen laurdenak eskatzean. Behar adinako aurrerapenarekin egin beharko da deialdia, proposamenak Batzar Orokorraren hurrengo ohiko bilkuran sar daitezen, eta, beti ere, deialdia justifikatzen duten eztabaidagaiak baldin badaude.
69. Kide anitzeko organoen bilkuretan, organoa osatzen duten kideen herenak parte hartu beharko du, gutxienez, eta kopuru hori bilkura osoan mantendu beharko da. Kopurua murriztuz gero, bilkura eten, eta beste deialdi bat egin beharko da.
70. Informazio-batzordeen bilkuren kasuan, deialdian zehaztutako orduan adierazitako kopurua lortzen ez bada, ordu erdi atzeratuko da bilkuraren hasiera-ordua, eta, denbora hori igaro ondoren, bertan daudenekin egingo da bilkura.
71. Kide anitzeko organoen bilkurak baliozko moduan egiteko, lehendakariak eta idazkariak edo haien legezko ordezkariak egon beharko dute. Idazkaria fede-emaila eta lege-aholkulari gisa joango da bilkuretara. Akta idatzi eta baimenduko du, eta lehendakariari lagunduko dio, gai-zerrendan jasotako gaietako azalpenak emanaz. Horrez gainera, ekonomia eta kontabilitate arloko gerenteak eta goi-teknikariak edo horien ordezkariak hartu beharko dute parte Gobernu Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilkuretan, aurreko paragrafoan adierazitako helburuarekin.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

72. Batzar Orokorraren bilkurak publikoak dira, eta batzar-aretoan lekua duten guztiek dute aukera bilkura horietara joateko.
73. Hala eta guztiz ere, osoko bilkura ate itxiekin eta publikorik gabe egitea erabaki dezake lehendakariak:
1. Mankomunitatearen edo mankomunitateko kideetako baten izen onari eta ohoreari eragiten dioten gaiak eztabaidatu eta erabaki behar direnean.
 2. Aurrez bilkura atzeratu bada, eta lehendakariak arrazoiak baditu susmatzeko bilkura atzeratzeko arrazoiak berriz gertatuko direla.
- Inolaz ere ezingo dira ate itxiekin eztabaidatu lehendakariaren eta lehendakariordearen zentsura-mozioak.
74. Gobernu Batzordearen bilkurak ez dira publikoak izango, eta hura osatzen duten pertsonak bakarrik parte hartu ahal izango dute.
- Hala eta guztiz ere, Gobernu Batzordeak berak eskaria egin ahal izango du, egoki irudituz gero, hartu beharreko erabakiei buruzko aholkua edo informazioa eman dezaketen funtzionarioek edo bestelako pertsonak parte har dezaten. Pertsona horiek batzar-aretotik joan beharko dute, dagokien parte-hartzea amaitu ondoren.
- Batzar Orokorreko kideei bilkuretako aktaren kopia bidaliko zaie.

3. azpiatala Akordioak egitea

75. Akordioak botoen gehiengo soil bidez egingo dira. Hala eta guztiz ere, mankomunitateko legezko kide kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da gai hauei buruzko akordioak egiteko:
- A. Mankomunitateko estatutu organikoa eta haren aldaketa onartzeko.
 - B. Funtzioak edo jarduerak beste administrazio publiko batzuei transferitzeko.
 - C. Ondasunak edo zerbitzuak bost urte baino gehiagorako emateko, baldin eta haien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten % 10a gainditzen badu.
 - D. Finantza- edo kreditu-eragiketak eta kita eta itxaroteko emakidak onartzeko, baldin eta horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %5a gainditzen badu.
 - E. Zerga-izaerako baliabide propioak ezarri eta antolatzeko.
 - F. Mankomunitateko funtzionarioak zerbitzutik kentzeko eta lan-kontratudun langileen diziplinazko kaleratzeak berresteko.
 - G. Ondasunak besterentzeko, horien zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten % 10a baino handiagoa bada.
 - H. Jabari publikoko ondasunen edo herri-ondasunen kalifikazioa aldatzeko.
 - I. Ondasunak beste administrazio edo erakunde publiko batzuei doan lagatzeko.
 - J. Legez zehazturiko gainerako gaietarako.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

76. Botazioaren emaitza berdinketa bada, beste botazio bat egingo da, eta berriz ere berdinketa ateratzen bada, lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

4. azpiatala

Aktak

77. Mankomunitateko kide anitzeko organoek egindako bilkura guztien akta egin beharko du idazkariak. Aktan, honako alderdi hauek jaso beharko dira:

1. Zer gobernu-organori dagokion.
2. Hasteko eta amaitzeko lekua, data eta ordua.
3. Bilkuraren ohiko izaera edo izaera berezia, eta lehenengo edo bigarren deialdia den.
4. Lehendakariaren izena.
5. Bertaratu diren kideen izenak, ez agertzeko arrazoiak agertu dituztenenak eta ez agertzeko arrazoirik eman ez dutenenak.
6. Eztabaidatutako gaiak, egindako parte-hartzeen laburpenak, defendatutako boto partikularrak eta egindako zuzenketa eta gehikuntzak.
7. Botazioen emaitza.
8. Egindako akordioak.
9. Bilkuran izandako gorabehera oro, baldin eta idazkariaren ustez aipagarria bada edo eztabaidatutako gaiarekin edo gaiekin lotura badu.

78. Bilkuretako aktak dagokion kide anitzeko organoak onartu beharko ditu aktak egin ondoren egiten den bilkuran. Hala, aktak onartzea izango da bilkura horretako gai-zerrendako lehenengo gaia.

Akta irakurri egin beharko da, baldin eta partaide guztiei kopia bana bidali ez bazaie, eta, eragozpenik ez bada, onartu egingo da.

Akta onartu eta berehala –eragozpenekin edo eragozpenik gabe–lehendakariak eta idazkariak sinatu beharko dute.

HIRUGARREN TITULUA

MANKOMUNITATEKO KIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

LEHEN KAPITULUA

Izaera ekonomikokoak

79. Mankomunitateko kideek kalte-ordaina jaso beharko dute haien jarduerak eragindako galder ekonomikoengatik, Batzar Orokorrak hitzartutako moduan eta zenbatekoen arabera eta dagozkion aurrekontu-kredituen barruan.

80. Mankomunitateko kide anitzeko organoek egindako bileretara joateagatik, dietak jasoko dituzte



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

mankomunitateko kideek. Batzar Orokorrek akordio bidez zehaztuko ditu dieta horien zenbatekoak.

Halaber, dietak jasoko dituzte lehendakariak berariaz baimendutako ikastaro, jardunaldi, bilera eta abarretara joateagatik. Kasu horretan, horiek irauten duten egun edo frakzio bakoitzaren arabera ordainduko dira dietak, joan-etorrietarako denbora ere kontuan hartuta.

BIGARREN KAPITULUA

Informazioari buruzkoak

81. Mankomunitateko kide guztiek eskubidea dute zerbitzu administratiboen esku dauden eta haien funtzioa aurrera eramateko beharrezkoak diren aurrekari, datu eta informazio oro jasotzeko lehendakariarengandik.
82. Lehendakariak uko egin ahal izango dio informazio hori emateari, kasu honetan:
Informazioa ezagutzeak edo zabaltzeak kalte egin badiezaioke pertsona baten edo haren senide baten ohoreari, intimitateari edo irudi propioari.
Mankomunitateko kideei bitarteko material egokiak emango zaizkie kontsulta ditzaketen espedientei buruzko datuak eta informazioa kontsultatzeko eta datuak hartzeko.

HIRUGARREN KAPITULUA

Betebeharrei buruzkoak

83. Mankomunitateko kideek obligazioa dute Batzar Orokorreko, Gobernu Batzordeko eta kide diren informazio-batzordeetako saioretara, eta, udalbatza bateko hautetsi izanik, horren arabera jokatzeko obligazioa dute, bilkuretan ordena, diziplina eta adeitasuna errespetatuz.
84. Mankomunitateko kideek une oro izan beharko dituzte kontuan legez jasotako bateraezintasunak.
85. Mankomunitateko idazkariaren eta kontu-hartzailearen eginkizuna izango da.
 1. Fede publikoa eta lege-aholkularitza ematea.
 2. Finantza- eta ekonomia-alorreko eta aurrekontu-alorreko kudeaketa, kontabilitatea, diruzaintza eta zerga-bilketa kontrolatu eta barne-mailan fiskalizatzea, legez adierazitako edukiaren eta irismenaren arabera.
86. Batzar Orokorrek gerente bat izendatu ahal izango du mankomunitateko zerbitzuen ekimen eta programak aztertu, garatu eta aurrera eramateko.
87. Funtsak erabili eta zaintzeko, berriz, mankomunitateko bertako langile bat izendatu ahal izango da.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

LAUGARREN TITULUA

EKONOMIA-ARAUBIDEA

LEHEN KAPITULUA

Sarrerak

88. Hauek izan daitezke mankomunitatearen baliabideak:
- A. Zuzenbide pribatuko diru-sarrerak.
 - B. Zerbitzuak emateagatik edo mankomunitatearen eskumeneko jarduerak egiteagatik jasotako tasak.
 - C. Obrak egiteko edo mankomunitatearen eskumeneko zerbitzuak martxan jarri, handitu edo hobetzeko kontribuzio bereziak.
 - D. Mankomunitatearen alde ezar daitezkeen estatuko eta autonomia-erkidegoko zergen partaidetza.
 - E. Diru-laguntzak eta zuzenbide publikoko bestelako diru sarrerak (batez ere, mankomunitatea osatzen duten udalerrien ekarpenak).
 - F. Kreditu-eragiketetatik lortutakoak.
 - G. Isunak.

BIGARREN KAPITULUA

Gastuak

89. Udalerri mankomunitatuetako udaletxeek obligazioa dute mankomunitateko gastuetan diruz laguntzeko eta mankomunitateak bere helburuak betetzeko erregulari dituen obligazio eta zorren aurrean erantzuteko eta horiek erregulari bermatzeko, baldin eta mankomunitatearen sarrerak ez badira nahikoak.

BOSGARREN TITULUA

MANKOMUNITATEAREN IRAUPENA ETA DESEGITEA

LEHEN KAPITULUA

Iraupena

90. Debabarrenako Mankomunitatearen iraupena edo indarraldia mugagabea izango da.

BIGARREN KAPITULUA

Mankomunitatearen aldaketa eta desegitea

91. Prozedura hau beteko da mankomunitateko kide diren udalak atxikitzeko eta bereizteko, albo batera utzi gabe autonomia-erkidegoko legerian beste gauza bat aurreikus daitekeela:
- A. Batzar Orokorrak atxikitzeko edo bereizteko proposamena onartzea, gehiengo osoz.
 - B. Mankomunitateko kide den udal bakoitzeko udalbatzak akordioa berrestea.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

C. Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako organo eskudunek txostena egitea.

D. Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak behin-betiko onarpena ematea.

B eta C izapideak aldi berean egin ahal izango dira.

Bereizketa kasuan, ez da loteslea izango mankomunitateko Batzar Orokorrak gai horri buruz egindako akordioa.

92. Mankomunitateko zerbitzuak zabaldu nahi direnean, aurreko artikuluan adierazitako prozedura bera jarraituko da. Hala ere, memoria baten bidez arrazoitu beharko da Batzar Orokorrak zerbitzua zabaltzeko proiektua onartzeko egindako akordioa. Memoria horretan, zerbitzu mankomunitateko beharra jaso beharko da, eta dagozkion gastuen azterketa egin beharko da.

93. Debabarrenako Mankomunitateko estatutuak aldatu nahi direnean, kide kopurua aldatu gabe eta zerbitzuak zabaldu edo kendu gabe, nahikoa izango da 91. artikuluko A eta B atalean jasotako izapideak betetzea.

94. Debabarrenako Mankomunitatea desegin egingo da helburuak bete ezin direlako, hura osatzen duten udal guztiak –bat izan ezik– bereizi egin direlako –legez ezarritako prozedura betez–, edo antzeko arrazoiengatik, baldin eta Debabarrenako Mankomunitateko Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu, kideen gehiengo osoaren aldeko botoen bidez, eta mankomunitatearen sorrerarako jarraitutako antzeko prozedura jarraituz.

- 95.
1. Debabarrenako Mankomunitatea desegitean, lehenik eta behin, mankomunitateak dituen zorrak ordaindu eta obligazioak betetzera bideratu beharko dira haren ondasun eta eskubideak. Gainerakoak, berriz, –baldin badaude– oraindik ere mankomunitatean jarraitzen duten udalen artean banatuko dira, partaideen proportzioaren arabera.
 2. Mankomunitateak sortutako azterketa, proiektu eta dokumentu zatiezinak egoitzako udaletxean artxibatuko dira, eta eragindako udalen eskura geratuko dira han.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Deba eta Mutrikuko udalak Debabarrenako Mankomunitatean sartzeko azterketa eta proposamena aurreratuta egonik, sarrera hori onartutzat joko da, Deba eta Mutrikuko udalen eskariz, mankomunitateko Batzar Orokorrak eta hura osatzen duten udaletako udalbatzek aldeko akordioa egiten badute.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA. Mankomunitateko udal guztiek bere gain hartzen dute zerbitzu bakoitzerako ezartzen diren arauak betetzeko obligazioa, Debabarrenako Mankomunitateko Batzar Orokorrak adostutako moduan eta balditzetan.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

BIGARRENA. Halaber, mankomunitateko udalek konpromisoa hartzen dute beren gain mankomunitateko instalazioak behar adinako erregularitasun eta eraginkortasunarekin funtzionatu ahal izan dezaten laguntzeko, mankomunitateko organoek onartutako planen eta lehendakaritzak instalazio horiez arduratzen diren langileei emandako jarraibideen arabera.

HIRUGARRENA. Estatutu honetan aurreikusten ez diren arloetan, honako arau hauek aplikatuko dira: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko Legea, Eusko Legebiltzarrak toki-araubidearen arloan onartutako legeria eta 1986ko apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretu Legegilea, hargatik albo batera utzi gabe haren oinarrizko artikulua eta toki araubidearen arloan aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Mankomunitatearen antolakuntza-araubideari eta funtzionamenduari dagokionez, lehenik estatutu hau aplikatuko da, baldin eta bat badator Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean xedaturikoarekin.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hau indarrean egongo da, 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, legezko izapideak egin ondoren, haren edukiak osorik argitaratzen direnean Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako aldizkari ofizialetan eta aipaturiko legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igarotzen denean.